

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

FAMILIA EREDU BERRIAK HAUR HEZKUNTZAN

Ikastetxe konfesional baten analisisa.

Egilea: Tania Abel Martín

Zuzendaria: Juan Antonio Barrenetxea Etxebarria

Leioan, 2014ko ekainaren 12an

© 2014, Tania Abel

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Marko teorikoa.....	5
1.1.Familiaren bilakaera.....	5
1.2.Familia aniztasuna, gaur egungo eskolaren erronka.....	8
1.3.Eliza Katolikoa familia eredu berrien aurrean.....	10
2. Metodologia.....	11
3. Lanaren garapena.....	15
3.1. Testuinguruaren deskribapena.....	15
3.2. Infomazioa bereganatzeko tekniken aplikazioa.....	17
4. Ikerketaren ondorioak, mugak eta hobekuntzarako proposamenak.....	24
4.1. Ondorioak.....	24
4.2. Mugak.....	25
4.3. Hobekuntzarako proposamenak.....	26
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	27

ERANSKINAK

I. Eranskina. Edukien analisiaren fitxa.....	29
II. Eranskina. Eztabaida taldearen gidoia.....	30
III. Eranskina. Behaketa taularen fitxa.....	31
IV. Eranskina. Elkarrizketaren gidoia.....	32
V. Eranskina. Familia unitate didaktikoaren jarduerak.....	33

FAMILIA EREDU BERRIAK HAUR HEZKUNTZAN.

Ikastetxe konfesional baten analisisia.

Tania Abel Martín

UPV/EHU

Gradu Amaierako Lan honek Haur Hezkuntzako etapan familia aniztasunari ematen zaion trataera aztertzea du helburu. Horretarako Bilboko Elizbarrutiko ikastetxe zehatz batean kasu ikerketa bat egitea erabaki da. Azterketaren ardatza ikastetxearen izaera konfesionala familia eredu berrien aniztasuna lantzeko zenbateraino traba izan litekeen frogatzea izan da. Ikerketarako erabilitako metodologia kualitatiboa izan da, eztabaida taldea, elkarrizketa sakonak, behaketak eta edukien analisisien bidezko teknikak nagusiak izanik. Teknika horien bitartez lortutako informazioaren inguruan zenbait ondorio atera dira eta, azkenik, horiek guztiak kontuan harturik hobekuntzarako proposamena planteatu da.

Familia berriak , eskola, aniztasuna, inklusioa, konfesionaltasuna.

Este Trabajo Fin de Grado tiene como finalidad analizar el tratamiento que se le da a la diversidad familiar en la etapa de Educación Infantil. Para ello se ha decidido hacer un caso de investigación en un colegio concreto cuya titularidad ostenta la Iglesia Católica-Diócesis de Bilbao. El eje del estudio se centra en analizar hasta qué punto la ideología confesional del colegio puede llegar a ser una traba a la hora de trabajar la diversidad de los nuevos tipos de familia en el aula. La metodología empleada en la investigación ha sido cualitativa, siendo el debate en grupo, la amplia conversación, la observación y el análisis de contenido las técnicas más utilizadas. Mediante la información obtenida a través de estas técnicas se han extraído varias conclusiones y, finalmente y teniendo en cuenta todas éstas, se ha planteado una propuesta de mejora.

Nuevas familias, escuela, diversidad, inclusión, confesionalidad.

The aim of this end-of-degree Project is to analyze the relevance that it has been given to family diversity in Primary School. To this end, it has been decided to investigate a particular case in a certain school, whose ownership is held by the Catholic Church-Bilbao Diocese. The main point of the project is to analyze how the school confessional ideology can be problematic when the moment of working in the new family type diversity comes. A qualitative approach has been used through the study, being group debate, wide range conversation, observation and content analysis the most used techniques. Thanks to the information gathered through these techniques, many conclusions have been drawn and, finally, having all of them into account, a proposal of improvement has been developed.

New families, school, diversity, inclusion, confessionalism.

Sarrera

Azken hamarkada hauetan familiaren egiturak hainbat aldaketa izan ditu. Aita, ama eta seme-alabez osatutako elkarbizitza unitateak, hau da, familia nuklearrak, aspaldin galdu du erabateko nagusitasuna. Haren ondoan beste elkarbizitza mota batzuk sortu dira: familia eredu berriak deritzetenak. Eskolak, gizarteratze prozesuan familiaren jarraipena izanik, aldaketa horien eragina zuzenenean nozitzen du.

Familia eredu berriak abiapuntutzat hartuz, lan honen helburu nagusia egoera berri horrek haur hezkuntzan duen eragina aztertzea da. Practicum dela eta, Muskizko San Juan ikastetxearekiko harremanak bertan kasu ikerketa sakon bat burutzeko aukera eman du. Ikastetxea Bilboko Elizbarrutikoa izanik, hau da, ikastetxe konfesionala, eta familia eredu berrien aurrean Eliza Katolikoaren jarrera zein den ezagututa, familiaren gaia ikastetxe konkretu horretan nola lantzen den aztertu nahi izan da. Bide horretatik abiatuta, eskolaren ideologia erlijiosoa familia aniztasuna lantzeko traba izan liteke edo ez ere egiaztatzeko asmoz. Horren inguruko diagnostiko sakona egin ondoren, azken helburua ikastetxeko irakasleekin batera, beharrezkoa ikusiz gero, eskolaren balioekin talka egiten ez duen familia eredu berriak aintzat hartzen duen unitate didaktiko berritzaile eta inklusibo baten proposamena egitea da.

Gaia kokatzeko, familiaren bilakaeraren inguruan gizarte zientzietako literaturaren errebisio bat egin da ikuspegi teoriko batetik. Era berean, familia eredu berrien hedapena ezagutzeko INE eta Eustaten iturri estatistikoak ere erabili dira. Marko teorikoa osatzeko, familia eredu berrien trataera hezkuntza arloan jorratu da, baita Eliza Katolikoak familia eredu berri horien aurrean testu pastoraletan agertutako jarrera ere, ikastetxe konfesionalen heziketa proiektuan eragina izango duelakoan.

Hurrengo atalean, erabilitako metodologiaren deskribapena egin da. Kasu azterketa izanik, hein handi batean, teknika kualitatiboak erabili dira: behaketa zuzena, eztabaida taldea, elkarrizketa erdi egituratua eta, azkenik, gaia jorrazteko erabiltzen duten material didaktikoaren edukien analisia.

Amaitzeko, teknika horien bitartez eskuratutako informazioa bildu eta aztertu egin da egoeraren inguruko ondorioak atera ahal izateko. Ondorio horiek aintzat hartuz eta ikastetxeko irakasleekin batera, eskola horretara zehazki egokitutako unitate didaktikoa garatu da hobekuntzarako proposamen gisa.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: familia eredu berriak, heziketa eta Eliza Katolikoa.

1.1. Familiaren bilakaera

Modernizazio eta industrializazioarekin batera, familiaren egiturak aldaketa sakonak bizi izan zituen. Nekazal gizarteetan familia eredu nagusia familia zabala edo hedatua zen, hiru belaunaldi hartzen zituena. Urbanizazio prozesuarekin familia nuklearra izatera pasatu zen, alegia, bakarrik gurasoek eta seme-alabek osatzen zuten.

Hori dela medio, gaur egun, oso zaila litzaiguke familiaren definizio bakarra eta aldaezina ematea, izan ere, M. Gonzalezek (2009:111) dioen bezalaxe, familia modelo bakarretik, modelo ezberdinetako familietara pasatu gara.

Gaur egungo familiek ez dute esanahi bakarra eta egiazkoa. Pertsonak ezberdinak gara, eta ondorioz eta nahita ez, hauek osatzen dituzten familiak ere ezberdinak dira. Familiek ez dute egituraketa bakarra izaten eta, ondorioz, gaur egungo familiaz mintzatzen garenean, ez diogu soilik erreferentzia egiten orain arte oinarri gisa izan dugun ohiko familia nuklearrari.

Eustaten (Euskal Estatistika Erakundea, 2012:211) arabera, “familia pertsona talde bat da, normalean ahaidetasun-lotura dutenak (odolekoa edo politikoa), edozein gradutakoa, bizitza elkarrekin egiten dutenak, eta normalean etxebizitza oso bat okupatzen dutenak”. Definizio hori baliagarria da helburu estatistikoekin, hau da, zenbaketarako irizpide zehatzak izateko, baina ez du jasotzen errealitatean ematen den harremanen aberastasun osoa.

Bilatutako definizio ezberdinen artean ALDARTE elkarteak emandakoa aukeratu da, definizio honetan islatzen den kontzeptua zabala eta anitza baita: “La familia es algo arbitrario, una forma más, como otras tantas que tenemos en la sociedad, de agrupar a una serie de personas con vínculos afectivos y emocionales”(Mujika, 2005:4).

Definizio hori gaur egungo errealitatearen isla baino ez da: ikusi bezala, ezkontza ez da lotura bakarra, bereizketak eta beste familia bat eratzea askotan gertatzen dira, bi guraso edo guraso bakarreko familiak osatzen dira eta, seme- alaben kopurua jaisteaz gain, horiek bide ezberdinetatik ere etor daitezke: adopzioa, laguntza bidezko ugalketa, lehenagoko harremanak eta abar. Bestalde, gaur egungo familiaren definizioan etxe berean bizi ez direnek ere osa dezakete familia. Familia eratzeke prozesuan dibortzioak,

bigarren ezkontzak egon daitezke, eta familia homoparentalek gero eta presentzia handiagoa izaten ari dira. (Aguado, 2010:131).

Badago Europa mailan familia egiturak jasandako eraldaketaren inguruko teoria: Bigarren Trantsizio Demografikoa. Termino hori Ron Lesthaeghe-k eta D.J. Van de Kaa-k (1986) sortu zuten hirurogeiko hamarkadatik aurrera Europako zenbait herrialdetako demografiak jasandako aldaketak deskribatzeko nahian. Gaztaroan gertatzen ziren hainbat gertaera atzeratu egin dira: etxetik alde egitea, lehen ezkontzaren adina, lehen semea izateko adina... eta horrek, ugalkortasunaren jaitsiera nabarmena ekarri du. Beste aldetik, gero eta ohikoagoak dira izatezko bikoteak, ezkontzaz kanpoko jaiotzak, banaketak eta dibortzioak. Gertaera horien guztien azalpen moduan sekularizazio prozesua, zein bizitza pribatuari eta norberaren autogarapenari ematen zaion garrantzia egongo lirateke (Pérez, 1993).

Juradok (2008) Espainiako familien kasuan jasandako aldaketak aztertutakoan, geroago gertatu direla nabarmentzen du baina, aldi berean, askoz arinago. Hirurogeita hamar urteetako hamarkadan hasi ziren aldaketa handienak, trantsizio politikoarekin batera, eta sakondu egin ziren hurrengo bi hamarkadatan. Emakume gazteak dira eragile nagusiak; aurreko belaunaldien aldean, ikasketa maila askoz altuagoa lortu dute eta etxez kanpo lan egiten dute. Familia eredu eta jokabide berritzaileak, izatezko bikoteak, dibortzioak... aldaketa horietan guztietan ikasketa maila altuko emakumeak dira protagonistak.

Gaur egungo familia eredu berriek aurretik zehaztutako elementu horien elkartasunarekin apurtzen dute, bata bestearengandik bereiziz eta, ondorioz, dagoeneko ez da beharrezkoa ezkontuta egotea familia bat osatzeko, edota sexualitate ugaltzailea izatea, ezta etxebizitza berean bizi behar izatea ere. Guraso bakarreko familiak, berregindakoak, guraso homosexualaz osatutakoak, seme-alabarik gabekoak, guraso bananduak dituztenak... eta horrelako errealitate amaiezinek familia nuklearra gure testuinguru kulturalarekin bat datorren bakarra ez dela egiaztatzen dute.

Errealitate berri hori INEk (Instituto Nacional de Estadística) 2013.urtean argitaratutako datuetan islatzen da. Adibide gisa, familia nuklearraren elementu nagusiek, 2001-2011 urte bitartean jasandako bilakaera aztertua da: ezkontuta eta ezkongabe dauden bikoteen datuak, sexu bereko eta ezberdineko bikoteenak eta egituraketaren araberrako etxebizitzarenak, non familia barruan dauden seme-alaben datu-bilakaera ere aztertzen den.

Gaur egun, nahiz eta gurasoak ezkontuta dauden familiak oraindik ere nagusiak izan, azken hamarkadan gora egin dute nabarmen guraso ezkongabez osatutako familiek, 2001-2011 urte bitartean azken familia mota hori %249,5 gora eginez.

Ezkontuta eta ezkongabeko bikoteak

	Bikoteak		Bilakaera		Gehiketa
	2001 Errolda	2001 Ehunekoa	2011 Errolda	2011 Ehunekoa	
GUZTIRA	9.510.817	% 100,0	11.473.534	% 100,0	%20,6
Ezkontutako bikoteak	8.947.032	%94,1	9.806.022	%85,5	%9,6
Ezkongabeko bikoteak	295.989	%3,1	1.034.513	%9,0	%249,5
Izatezko bikoteak	267.796	%2,8	632.998	%5,5	%136,4

1. taula. INE. 2011ko biztanleria eta etxebizitza errolda

Sexu bereko eta ezberdineko bikoteei dagokionez, nahiz eta 99.5% sexu ezberdineko gurasoen familiek osatu, sexu bereko familiak bost aldiz biderkatu dira azkenengo hamarkadan, gaur egun 54.920 izanik. Horren harira, Eustat-ek 2012. urtean Euskadi mailan egindako azterketa demografikoaren informean adierazi du 2005. urtean sexu bereko pertsonen ezkontzak legezatu zirenetik, 800 ezkontza baino gehiago egin direla. Nahiz eta kuantitatiboki oso fenomeno ugaria ez izan, gizartean eragin sakona duen fenomeno dela diote, familiaren definizioan eta eraketan birmoldaketa handia eragin duelako.

Sexu bereko eta ezberdinetako bikoteak

	Bikoteak		Bilakaera		Hazkundera
	2001 Errolda	2001 %	2011 Errolda	2011 %	
GUZTIRA	9.510.817	% 100,0	11.473.534	% 100,0	%20,6
Sexu ezberdinetakoak	9.500.343	% 99,9	11.473.534	%99,5	%20,2
Sexu berekoak(emak.)	3.478	%0,0	17.067	%0,1	%390,7
Sexu berekoak (gizon)	6.996	%0,1	37.853	%0;3	%441,1

2. taula. INE. 2011ko biztanleria eta etxebizitza errolda

Familia barruan dauden seme-alaben kopuruak behera egin du nabarmen, gaur egun umerik gabeko bikoteak nagusiak izanik. Hona hemen INEk egituraketaren arabera etxebizitzaren taulan 2001-2011 urte bitartean argitaratutako seme-alaben kopuruaren bilakaera:

Egituraketaren arabera etxebizitzak			
2011 Errolda	Etxebizitzak		
	2011%	2001-2011	bitarteko hazkundera
GUZTIRA	18.083.692	% 100	% 27,5
Umerik gabeko etxebizitza	3.804.677	% 21,0	% 55,4
Ume bateko etxebizitza	2.493.475	% 16,3	% 34,8
Bi umeko etxebizitzak	2.804.715	% 15,5	% 11,6
Hiru edo gehiago umeko etxebizitzak	573.732	% 3,2	% -32,8

3. taula. INE. 2011ko biztanleria eta etxebizitza errolda

1.2. Familia aniztasuna, gaur egungo eskolaren erronka.

Gaur egun, eskola eta familia haurren sozializazio eta hezkuntza agente nagusiak dira. Hori dela bide, haurren hezkuntza garapen orekatua ziurtatzeko, bata zein bestea norabide berean jardutea beharrezkoa da. Hala ere, familia eta eskolaren arteko batasun harreman hori azkeneko urteetan apurto ez bada, nahikotxo urundu dela badirudi (Garreta, 2007)

Ikusi bezala, urteen poderioz familiak zenbait eraldaketa jasan ditu, haren egituraketan eragin zuzena izan dutenak. Aldaketa horiek guztiek eskoletan ere isla izan dute; izan ere, eskola familia eredu guztiekin harremana duen instituzioa da, hots, bertatik, salbuespen barik, ume guztiak eta horien familiak igarotzen dira. Hori dela eta, eskolari egoera berri horien erantzule izatearen ardura gaineratu zaio. Alabaina, eskola familia aniztasunaz duen ezaguera eta baliabide falta dela eta, horrek planteatzen dituen egoera berrien aurrean berriztatu beharrean, galdurik eta zurrin azaldu da. Hau da, eskolak sarri askotan ez daki nola heldu gaiari, zein laguntzak dituen, edota ikuspegi berriak nola sistematizatu (Aguado, 2010:138).

Orain dela gutxi arte, eskolak familia eredu bakarrari baino ez zion erantzuna eman behar. Ondorioz, curriculumean zehaztutako edukiak, gelan burutako jarduerak, gurasoei zuzendutako zirkularrak edota curriculum ezkutuaren bitartez transmititutako mezuak soilik familia eredu zehatz bati zuzentzen ziren. Gaur egun, aldiz, eskola gizarte aldakor baten aurrean agertzen da, familia aniztasuna bere desafio garrantzitsuenetatikoa bihurtuz. Izan ere, familia gai konplexua eta ideologia anitzekoa da.

Gaur egungo eskolaren erronka aniztasunari heltzea da. Helburua balio inklusiboak oinarri dauzkan guztiontzako eskola sortzea da. González eta Guinart (2011:189) autoreek ondo adierazi bezala, “inklusioak ikasle guztienganako errespetua, tolerantzia eta onarpena eskatzen ditu, horien baldintzak zein egoera pertsonalak zein diren kontuan hartu barik”. Hori lortzeko, eskola aniztasunera zabalik dagoen espazioa bihurtu behar da, non ikasle guztiek parte hartu eta kontuan hartzen diren (Gonzalez eta Guinart, 2011:192). Horren haritik, interesgarria da Koerner-ek eta Hulsebosch-ek (1996) eskola eta familiaren inguruan egiten duten metafora. Autore horien aburuz, eskola familia aniztasunaren aurrean, ispilua eta leihoa izan behar da. Hots, alde batetik, ume guztiek euren errealitatea eta familia-bizipenak islatuta ikusten dituzten ispilua; eta bestetik, beste pertsonen familia-esperientzietara zabalik dagoen leihoa. Horrela, haurrek familiaren inguruko hausnarketa sakonago egiteko aukera izango dute, eta tolerantzia, errespetua eta aniztasunean hezituko dira. Hau da, eskolan familiaren gaiari ematen zaion trataeraren arabera joango dira haurrak euren familia-kontzeptua eraikitzen (González, 2009:387).

Alegre (2000:16) autoreak aniztasuna nortasunarekin erlazionatzen du; izan ere, haren aburuz, identitatea besteengandik ezberdintzen gaituena da, hots, norbera izaten laguntzen gaituena. Denok ezberdinak eta bereziak gara, eta hori onartzea eta begirunez tratatzea inklusioa lortzeko eman beharreko pausua da.

Haur Hezkuntzako curriculuma aztertzen bada, landu beharreko lehenengo esperientzia eremua “norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala” da. Atal horretan nortasun pertsonalaren garapena azpimarratzen da, baita garapen prozesu horretan haurrekin elkarerraginean dauden pertsonen jarreraren garrantzia ere:

Nortasun pertsonala eraikitzea haurrak bere ingurune fisikoarekin, naturalarekin eta, batez ere, sozialarekin dituen interakzioen emaitza da, haurren esperientzia multzoaren ondorioa, alegia. [...] Kontuan izan behar da haurrak bere buruaren inguruan

egiten duen irudia, hein handi batean, inguruan dituztenek erakusten dioten irudiaren barneratzea dela, bai eta haiengan jartzen duen konfiantzarena ere. Halaber, helduek haurren ekimenak jasotzeko erabiltzen duten moduak erraztu edo oztopatu egingo du haren garapena. (Haur Hezkuntzako Dekretu Kurrikularra, 2010:26-27)

1.3. Eliza Katolikoa familia eredu berrien aurrean.

Eliza Katolikoarentzat familia eta hezkuntza oinarrizko erakundeak dira haren baloreak zabaltzeko eta mantentzeko. Familian ematen ari diren aldaketan aurrean, behin eta berriro agertu da Elizaren hierarkia hedabideen aurrean familia tradizionalaren defentsa aldarrikatuz. Hemen aztertuko diren dokumentuak Elizak familiaren inguruan, idatzitako bi pastoral dira. Lehenengoa, Euskal Herriko elizbarrutietako gotzainek idatzitakoa, 1995. urtean, “Familia aurkitzea gaur egun” izenburupean. Bertan onartu egiten da aldaketa kultural handi bat egon dela, eta ezkontza eta familia kontu pribatu bihurtzen ari direla. Emakumeen rol berriak, feminismoak, eta hedabideen eraginak, areagotu egin dute fenomenoak. Hala ere, “soilik ezkontza monogamoa eta askaezina da gai, ezkontza oinarri delarik, sortutako elkartasun bizitzaren giza mailako aberastasuna ziurtatzeko, maila pertsonalean nahiz sozialean. Horrela ulertzen du Elizak” (1995:18). Irtenbide moduan guraso eskolak sustatzea proposatzen dute. Hurbilagoa denboran, eta garrantzitsuagoa hierarkian, 2003. urtean Espainiako gotzainen konferentziak argitaratutako “Directorio de Pastoral Familiar” izenekoa da. Atal oso batean, bosgarrenean (2003:64-75), egoera “zail eta irregularretan” dauden familiei eskaini behar zaien arreta zein den zehazten da. Banan-banan aztertzen dira egoera batzuk: bananduak, dibortziatuak, dibortziatuak eta berriro ezkontutakoak, soilik ezkontza zibila izan dutenak, izatezko bikoteak, familia homoparentalak... Horiek guztiak elkarbizitza eredu irregularrak lirateke, larritasun maila ezberdinekin, dotrinaren ikuspegitik.

Trataera berezia merezi dute familia monoparentalek. Halako kasuetan, nolabaiteko babes falta sumatuz, egoeraren azterketa sakonagoa proposatzen da, egoeraren jatorria zein den ezagutzeko laguntza eskainiz. Antzekoa izango litzateke, umezurtz edo familiarik gabe bizi direnen egoera.

Ezkontzaren sakramentua dela medio, eta gaur egungo kultur aniztasuna kontuan izanda, gero eta ohikoago bihurtzen ari dira jatorri erlijioso ezberdinetako bikoteen arteko ezkontzak, eta horixe da, hain zuzen ere, Eliza Katolikoarentzat kezka iturri inportante bat. Bi egoera bereizten ditu: bikote mistoak (kristautasunaren arlo

ezberdinetakoak) eta bikote “dispareak”, bataiatu gabeko batekin ezkontzean gertatzen dena.

2. Metodologia

Behin gaia eta GAL motaren aukeraketa eginda, kasu ikerketa, lanaren eskema orokorra egin da, non landu beharreko punturik garrantzitsuenak adierazi diren. Garatutako lehenengo puntua marko teorikoaren osaketa izan da. Atal hori landu ostean, estuki lotuta dauden erantzunik gabeko bi galdera planteatu dira, ikerketa egitera bideratu dutenak: *Nola lantzen dira familia eredu berriak haur hezkuntzan?; Ikastetxeko ideologia Erlijiosoak familia eredu berrien lanketa aurrera eramateko oztopoa izan daiteke?* Galdera horien erantzuna aurkitu nahian, eta praktikaldi garaia aprobetxatuz, San Juan izeneko Bilboko Elizbarrutiko ikastetxean kasu ikerketa egin da, eskola zehatz horretan familiaren gaiari ematen zaion trataera ezagutzeko asmoz eta, horren ondoren eta posiblea izanez gero, hobekuntza proposamenak eskaintzeko. Ikerketaren eraginkortasuna eta ondorioen fidagarritasuna handitu nahian, hasiera batean herrian bertan funtzionamendu eta ideologia ezberdina duten beste bi eskolen kasu ikerketa ere egitea erabaki zen, ondoren, hiruren arteko konparaketa egin ahala izateko. Hala ere, denbora eta baliabide falta direla eta, asmo hori bertan behera utzi behar izan zen..

Erabilitako ikerketa mota deskriptiboa izan da, hots, ikerketa aurrera eramateko paradigma interpretatzaileaz baliatu da; izan ere, ikerketa eskuratutako datuak ulertzera eta interpretatzera zuzenduta dago. Aukeratutako metodoa kualitatiboa izan da, helburua pertsonak dituzten jokabideen arrazoiak ulertzea izanik. Ikerketaren oinarria marko teorikoan bildutako informazioa izan arren, ikerketa honetan lehenengo mailako datuak ere berebiziko garrantzia hartzen dute, metodologia kualitatiboa nagusia izanik. Honela definitzen du Mesonerok (2005:53) ikerketa kualitatiboa: “Ikerketa kualitatiboa datuak lortzeko estrukturatutako metodo bat da, lagin txikiekin egiten du lan eta jomugatzat du pertsonen barne-izaerari buruzko informazioa lortzea, hots, motibazioa, iritziak, interesak...”

Ikerketa egiteko zenbait urrats ezberdin eman behar izan dira. Lehenengoa, ikerketa horren helburu orokor nagusia finkatzea izan da; izan ere, helburua ikerketa osoa bideratzen duena da. Ikerketaren helburua Elizbarrutiko eskola zehatz horretan familiaren gaia nola lantzen duten aztertzea izan da, horitik abiatuta, familia eredu

berriak aintzat hartzen dituzten edo ez ikusteko. Informazio hori guztia eskuratzeko, lehenengo eta behin, ikastetxeari buruzko informazioa bildu da. Informazio hori gehien bat ikastetxeak duen webgune korporatibotik zein Bilboko Elizbarrutiko eskolen webgune orokorretik lortu da. Familiei buruzko informazioa lortzearen zuzendariari eskatu zaio informazio hori; hala ere, konfidentziasun arazoak direla eta, familien inguruko informazio zehatza lortzea ezinezkoa izan da. Horren inguruan lortutako informazioa irakasleek eskainitakoa baino ez da izan; alabaina, nahiz eta eskasa dirudi, ideia orokorra egiteko baliagarria izan da. Ikerketa eremua mugatu nahian, analisia Haur Hezkuntzako bigarren zikloan aurrera eramana da. Ikerketa prozesu osoaren iraupena gutxi gorabehera bi hilabete ingurukoa izan da, martxoan hasi eta maiatzean amaitu.

Bigarrenik, informazio iturrien zehaztapena egin da. Esan bezala, eskolan bertan informazioa eskuratzeko lehenengo mailako datuak erabili dira, arreta guztia irakasle, eskola eta gelan bertan erabilitako materialetan eta horien trataeran jarriz. Informazio hori eskuratzeko erabilitako tekniken aukeraketa ere ikerketa prozesuan hartu beharreko erabakia izan da. Erabilitako teknika kualitatiboak dokumentuen bidezko edukien analisia, eztabaida taldea, behaketa eta elkarrizketa sakona izan dira.

Hona hemen teknika horien zehaztapena eta aplikazioari buruzko datu batzuk:

- **Edukien analisia**

Gela mailan familia aniztasuna lantzen den edo ez egiaztatzeko asmoz, bertan erabiltzen duten material didaktikoaren azterketa egin da, familiaren gaia lantzeko erabiltzen duten unitate didaktikoarena hain zuzen ere. Azterketa hori egin baino lehen informazioa batzeko erregistro-fitxa bat prestatu da, non aztertu beharreko aspektuak zehaztu diren. Juriastik (2003) esan bezala, “aztertutako eduki eta ikerketaren helburuaren artean erabateko harremana egon behar da”; horrexegatik, erregistro-fitxa egiterakoan marko teorikoan landutako edukiak zein ikerketaren helburua oinarri hartu dira.

Lehenengo eta behin editorialari buruzko zenbait informazio bildu da, horren ikuspegia eta funtzionamendua ezagutzeko asmoz. Ibaizabal editorialak, haur hezkuntzako etapan lantzeko garatu duen Nubaris Dimentsioa izeneko proiektuaren barruan, hiru unitate didaktiko planteatzen ditu hiruhileko bakoitzeko, hots, unitate didaktiko bat hilabete bakoitzean lantzeko. Familiaren gaiari zuzenduta dagoen unitatea lehenengo hiruhilekoaren bigarren hilabetean jorrazteko diseinatuta dago, urrian hain zuzen ere, behin egokitzen aldiarekin amaitu ostean.

Material horren azterketa egiteko gela bakoitzak familiaren gaia lantzeko erabiltzen dituen liburuxkak bildu eta etxera eramanez dira lasai aztertzen. Lehenengo eta behin egituraketaren araberrako ikerketa egin da, ondoren irudi eta horien egokitzapenarena eta, amaitzeko, edukien analisiarena. Informazio hori guztia aipatutako erregistro-fitxan bildu da, azkenik, horren inguruan hausnartu eta ondorioak ateratzeko. Edukien analisiaren bidezko teknika hau ikerketaren lehenengo astean burutu da, eta analisiak aste bat inguru iraun du.

- **Eztabaida taldea**

Behin edukien analisia eginda, familia aniztasunari gela mailan ematen zaion trataeraren inguruko iritzia ezagutzeko, eta hori hobetzeko zein nolako proposamenak eta nahiak dauden egiaztatzeko asmoz, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakasle guztiekin eztabaida talde bat sortu da. Taldekako eztabaida egitearen helburua konfiantzazko giroa sortzea izan da, non irakasleek euren ideiak eta iritzia askatasun osoz adierazteko eroso sentiarazten diren.

Eztabaidarekin hasi aurretik, hori bideratzen duen gidoia sortu da. Gidoia planteatzeko mementoan marko teorikoan zein edukien analisiaren bidez bereganatutako informazioa kontuan izan dira. Bertan hiruzpalau ideia eta horien inguruko zenbait galdera zehaztu dira batzarraren nondik norakoa ondo zehazteko asmoz. Planteatutako galdera horiek arazoan oinarritutakoak izan dira, hots, eztabaida arazoaren inguruko alderdiak biltzen saiatu da. Galderak zabalak izanik, nahiz eta gidoia gutxienezko zehaztapena izan, mementoan bat-bateko beste zenbait galdera agertzeko aukera ematen dute.

Irakasle taldeari dagokionez, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa 24-40 urte bitarteko sei irakasle emakumeek osatzen dute. Gehiengoak herri bertokoak izan arren, badaude beste udalerritik datozen bi. Euren artean oso harreman ona sumatzen da, izan ere, ordekoak salbu, badaramate elkarrekin zenbait urte lan egiten. Bakoitzak adin zehatz batekin lan egiten du beti, hau da, ez dute talde batekin haur hezkuntzako etapa osoa betetzen; ondorioz, irakasleen arteko komunikazioa eta laguntza ezinbestekoa da haurrak ondo ezagutzeko eta euren garapen prozesuan laguntzeko.

Eztabaida ikerketa hasi eta handik bi astera burutu da. Hori aurrera eramateko beharrezkoa izan da irakasle guztiek batera duten ordu librearen lortzea, eta aprobetxatuz asteazken arratsaldean klaseak ez daudela egun horretan bertan burutzea erabaki da. Bestetik, lortutako informazioa ahalik eta esanguratsuen izan dadin, beharrezkoa izan da

estimulu ugari gabeko gela batean biltzea. Iraupenari dagokionez, 40/45 minutu inguru egon dira irakasleak bilduta. Eztabaida egiteko mementoan informazioa ez galtzeko, grabagailu bat erabili da.

- **Behaketa**

Erabilitako teknika ohikoena izan da. Hala ere, kasu konkretu honetan beste teknika batzuen osagarri gisa erabili da; izan ere, Mesonerok (2005) esan bezala, “behaketa beste ikerketa-teknika batzuen osagarri gisa ere erabil daitezke, lortutako emaitzak zabaldu eta aberasteko asmoz”. Hau da, kasu jakin honetan elkarrizketaren teknikarekin batera erabili da, ebaluazioa egiteko mementoan ahalik eta informazio gehien bereganatzeko helburuarekin. Behaketak egiten hasi aurretik erregistro-fitxa bat sortu da, aldeztatik elkarrizketan egindako galderekin bat etorri dena.

Behaketak zuzenak izan dira, eta ingurune naturalean aurrera eraman dira, hau da, irakasle bakoitzaren gelan (hiru, lau eta bost urteko geletan). Behatzailearen jarrera pasiboa izan da, hots, ez du behaketan parte-hartze zuzena izan. Informazio hori eskuratzeko, gela bakoitzean aste beteko behaketa egin da. Eskuratutako informazioa ahalik eta gutxien baldintzatuta egon arren, irakasleei ez zaie behaketa horren berri eman. Behaketak ikerketaren hirugarren astean hasi dira eta hilabete eta erdi inguru iraun dute.

- **Elkarrizketa sakona**

Elkarrizketa San Jaun Ikastetxeko zuzendariari egin zaio. Zuzendariarekin izandako elkarrizketaren helburua ikastetxeak familien inguruan hartutako konpromisoaren inguruko zenbait zalantza argitzea izan da. Izan ere, eskolari buruzko informazioa biltzean, bai Bilboko Elizbarrutiko eskolen webgunean, bai San Juan eskolaren webgune korporatiboan, aniztasuna zein familia molde berrien agerpenari erantzuna emateko konpromisoa hartzen dutela adierazten dute. Jorratzen ari den gaiarekin bat datozen baieztapenak izanda, bi gai horiei nola egiten dioten aurre jakinarazi nahi izan da.

Erabilitako teknika kualitatibo hori zuzena izanik, elkarrizketatuari elkarrizketaren helburua zein lortutako informazioaren erabilera azaldu egin zaio lehenengo mementotik, baita egingo zaion elkarrizketa horri buruz berarengandik espero dena. Elkarrizketa zuzendariaren bulegoan burutu da, elkarrizketatua ahalik eta erosoan senti

dadin. Ikerketaren laugarren astean egin da, testuinguruari buruzko informazioa bildu ostean.

Teknika ezberdin horien bidez informazio guztia eskuratu ostean, ikerketaren ondorengo urratsa ondorioak ateratzea izan da. Horretarako, marko teorikoan bildutako informazioa eta ikerketan zehar teknika ezberdinen bitartez lortutakoa uztartu da. Horren ostean, informazio hori guztia ikerketaren hasieran finkatutako galderari erantzuna emateko erabili da. Lan honen azkeneko eginkizuna ikerketaren bitartez ateratako ondorioak oinarri izanik, hobekuntzarako proposamena planteatzea izan da.

3. Lanaren garapena

Hauxe da Mesonerok (2005) ikerketari buruz egiten duen deskribapen laburra: “Ikerketa, sinpleki esanda, galdera bati erantzun eta horrela arazo bat konpontzeko behar den informazioa jasotzean datza”. Hori dela medio eta, lehen aipatu bezala, alde batetik, marko teorikoaren lanketa egitean arazoaren muina jasotzen duten bi galdera planteatu dira, eta horiek izan dira, hain zuzen ere, ondorengo ikerketaren abiapuntutzat hartu izan direnak. Galdera horiei erantzuna eman nahian, testuinguruaren deskribapena zein teknika ezberdinen aplikazioa egin da:

3.1 Testuinguruaren deskribapena

Aipatu lez, ikerketa burutzeko Muskiz herrian kokatuta dagoen San Juan ikastetxea aukeratu da. Kokaguneari dagokionez, Muskiz meatzaritza aldean dagoen herria da, eta gaur egun 7.620 bizilagun inguru bizi dira bertan. Muskizeko gizarte-maila ertaina da, eta bizilagun gehienek industriaren sektorean lan egiten dute; izan ere, herrian bertan findegi handi bat dago, non Muskizeko familia askok lan egiten duten.

Ikastetxeko webgune korporatiboan (2014) honela definitzen dute euren izaera: “San Juan ikastetxeak pertsonaren formazio integrala dauka helburu, giza eta kristau baloreetan oinarrituta dagoena eta metodoak, baliabideak eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzen dituena, bizigiro abegikor, eragingarri eta parte hartzailean”. Euren esanetan, arreta berezia egiten diote aniztasunari, ikasleen gaitasunak garatzeari, eta pertsona autonomo eta solidarioak osatzeko moduko ohitura, balio eta jarrerak eskuratzeari. Hori lortzearren, San Juan ikastetxeak giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak, metodologia eta pedagogia-proiektu berritzaileak eskaintzen ditu

Ikastetxera 520 ikasle inguru etortzen dira. Gehiengoak Muskizekoak izan arren, zonaldetik D eredu eskaintzen duen ikastetxe kontzertatu bakarra denez, badaude meatze eskualdetik zein Kantabriatik ere datozen zenbait ikasle. Familien inguruko informazio gutxi izan arren, badakigu gehiengoak familia tradizionaletik datozela. Hala ere, haur hezkuntzan konkretuki, badaude zenbait familia eredu zehatz hori jarraitzen ez dutenak, familia monoparentalak, berregindako familiak, banandutako familiak eta adoptatutako haurrak, hain zuzen ere.

San Juan ikastetxeak 0tik 12 urtera arteko eskaintza egiten du, hau da, ikasleek Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan hasi, eta Lehen Hezkuntzan amaitzeko aukera daukate. Hala ere, Haur eta Lehen Hezkuntza etapa horien bukaeran Somorrostro irakasgunearekin jarraipena daukate, non ikasleek DBH, Batxilergoa, zein goi eta behe mailako zikloak burutzeko aukera duten; izan ere, zentro biek Bilboko Elizbarrutiarenak dira.

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan urte bakoitzeko gela bat egon arren, bigarren zikloan zein Lehen Hezkuntza osoan bi gela dituzte adin bakoitzeko. Gela bakoitzean 25-26 ume inguru batzen dira. Irakasle tutore bakoitzak adin talde zehatz bat egokituta dauka, beraz, kurtso bakoitzean talde ezberdin batekin jarduten du. Salbuespenak ingeleseko, erlijiozko eta musikako irakasleak dira, klase guztietatik igarotzen direla.

San Juan ikastetxea Bilboko Elizbarrutiarenak diren 16 eskolen artean dago. Bilboko Elizbarrutiko webgunetik (2014) honelako aurkezpena egiten dute: “Bilboko Elizbarrutiarenak diren Elizbarrutiko Ikastetxeek Eliza eta Euskal Herria beren aniztasun, hizkera eta kultura kontuan hartuta zerbitzatzeko senaz jaio ziren, eta gaur egun ere horretan dira; hau da, arlo sozial zehatzetan integratuz, eta gizarteak aurkezten dituen erronka berriei aurre eginez. Erronka horien artean etorkinen integrazioa, familia eredu berrien agerpena, ebanjelizatzerako bideak eta baliabideen berrikuntza, eta haur eta gazte ahulenen beharrak daude”.

Eskola horiek guztiak konfesionalak izanik, Ebanjelioan inspiratutako berriazko eta aparteko hezkuntza egitasmoa aplikatzen dute, hots, balio kristauen bultzatzaileak dira, Pastoral Barrutietan txertaturik daude, Elizbarrutiko erakunde ezberdinekin batera lankidetzan aritzen dira, eta hori guztia, bakearen eta gizarte errealitatearen hobekuntzaren aldeko konpromisoa hartuz

3.2 Informazioa bereganatzeko tekniken aplikazioa:

- **Edukien analisisa /1. eranskina**

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, “Besarkadak eta laztanak” (3 urteko gela), “Uharteko etxea” (4 urteko gela) eta “Suaren epelean” (5 urteko gela) izeneko unitate didaktikoak erabiltzen dituzte familiaren gaia jorratzeko. Unitate didaktiko horiek Ibaizabal argitaletxeak argitaratutako Nubaris Dimentsioa izeneko proiektuaren barruan daude. Proiektu horrek haurren garapen integrala du helburu, hori dela eta, unitate didaktikoak metodologia global baten bitartez jorrotzen dira, non Haur Hezkuntzan landu beharreko oinarrizko gaitasunak uztartzen diren.

Unitate didaktiko horiek guztiak kursoaren lehenengo hiruhilekoan lantzen dira gela guztietan. Nahiz eta adinaren arabera unitate didaktiko horien edukien zailtasun maila ezberdina izan, guztiek eredu zein orden berbera jarraitzen dute: horma irudi motibatzailea, ipuinaren aurkezpena, grafomotrizitatea, matematikaren lanketa...

Unitate didaktikoak ez daude familiaren gaia espresuki lantzerantz zuzenduak, hau da, bertan etxearen eta familiaren gaiak jorrotatu egiten dira. Bi gai horiek estuki lotuta daudela aprobetxatuz, unitate berean uztartu egin dituzte. Unitate horien analisisa egin ostean bertan agertutako familia guztiek eredu tradizionalari erreferentzia egiten diotela ikusi da, non ama, aita eta horien seme-alabak nagusiak diren. Hau da, bertan ageri diren irudiak zein jarduerak oso estereotipatuak daude eta familia mota konkretu horri baino ez dira zuzentzen. Horren adibide zehatz gisa unitate guztietan agertzen den horma irudi motibatzailea dago, non gurasoak eta horien seme-alabak ekintza ezberdinak betetzen agertzen diren. Ondorioz, familia eredu horretatik aldentzen diren gainerako familia motek nekez identifikatzeko aukera dute material horiekin.

Horretaz aparte, unitate horien egituraketa nahiko itxia da, hau da, fitxa bakoitzean egin beharreko guztia oso zehaztuta dago, aldaketak zein egokitzapen gutxi egiteko aukera emanaz. Adibidez, 5 urteko haurrentzat zuzendutako liburuxkan badago lamina bat non beste kulturetako familiak lantzeko aukera bikaina dagoen, hala ere, fitxa horren inguruan zehaztutako eginbeharra bertan agertutako trazatuak gainmarratzea baino ez da (Suaren epelean, 2013:15).

Azkenik, unitate horietan genero berdintasunari dagokionez aurrerapauso handia nabarmentzen dela aipatzekoa da; izan ere, irudietan argi ikusten da emakume eta gizonen arteko rol ezberdintasunekin apurtzen dutela, bien arteko berdintasun

printzipioak ezarriz. Nahiz eta unitate guztietan horren inguruko irudiak agertu, goraiatzekoa da 3 urteko liburuxkan ageri den fitxa bat, non familia kide guztiek, seme-alabek barne, etxeko lanak egiten ageri diren (Besarkadak eta laztanak, 2013:2) Irudi horien bitartez ikasleek inkontzienteki berdintasun zein erantzukizun printzipioak bereganatzen eta barneratzen dituzte txikitatik.

- **Eztabaida taldea/ 2. eranskina**

Irakasleekin izandako biltzarrean guztiek familiaren lanketaren garrantzia azpimarratu dute, batez ere haur hezkuntzako etapan, non haurren testuingurua gehien bat familietara murrizten den. Esan bezala, lanketa hori konkretuki lehenengo hiruhilekoan familia eta etxearen gaiak jorratzen dituzten unitate didaktiko ezberdinen bitartez lantzen dira. Unitate horiek familia eredu nuklearrari soilik zuzenduta daudela ikusita eta aztertuta, irakasleei unitate didaktiko horien egokitasunaz galdetu zaie, baita material berri baten beharraz ere. Irakasle bat izan ezik, gainerako irakasleak familia eredu berrien lanketa beharrezkoa dela nabarmendu dute, aniztasuna lantzen duen material berrien alde apustua eginez. Hala ere, elkarrizketa aurrera joan den heinean jasandako erantzunak nahiko kontraesankorrak direla ikusten da. Izan ere, irakasleen nahi hori zenbait baldintzetatik mugatuta dago:

B.D.: Aproposena aniztasuna islatzen duen materiala erabiltzea litzateke, hau da, nahiz eta gelan konkretuki familia tradizionaletik aldentzen diren familiak ez egon, ondo legoke haurrei familia mota ezberdinak daudela erakustea. Gizartea aldatzen doan heinean guk aldaketa horiei moldatzen joan beharko ginateke. Adibidez, ipuinetan edota unitateetan agertzen dena haurrek ikasten dutena da, eta bertan irudikatutakoa suposatzen da guztientzako hoberena eta idealena dela. Hori kontuan hartuta, uste dut landutako eduki horiek arriskutsuak izan daitezkeela ume baten autoestimurako adibidez.

(B.D.: 37 urte, 18 urte irakasle bezala, 2 urte ordezkapenak egiten San Juan ikastetxean]

S.L.: Ni ere ados nago Itzik esandakoarekin. Agian erabiltzen dugun materiala nahiko mugatuta dago, eta aldaketak edota egokitzapenak egin beharko genituzke. Poliki-poliki unitateetan aldaketak sartzen joan dira, nik adibidez gogoratzen dut aspaldi erabiltzen genituen unitateak non emakumeak beti sukaldean janaria prestatzen eta gizonak lan egiten agertzen ziren. Unitate horiek bai zirela heavyak!

[S.L.: 31 urte, 9 urte irakasle bezala, 9 urte San Juan ikastetxean]

Nahiz eta irakasle guztiak material eguneratu edota egokitu baten beharra sumatu, beste irakasle batek argi adierazi du bere jarrera lehenengo mementotik, material berria edota dagoenaren egokitzapenaren beharra baztertuz:

A.G.: Erabiltzen dugun materiala ikasle gehiengoei egiten dio erreferentzia, eta hori ez da txarra, gainerakoak gutxiengoak dira. Gelan familia homosexual baten ipuin bat kontatzen baduzu, agian hurrengo egunean zazpiehun guraso dituzu hor behean azalpenak eskatzen. Agian erabiltzen dugun materialarekin ez zaio familia guztiei erantzuna ematen, baina bai gehiengoei. Nik ez dut material berri baten beharrik ikusten.

[A.G.: 40 urte, 15 urte irakasle bezala, 10 urte San Juan ikastetxean]

Gelan erabilitako material horren hautaketaren inguruan galdetzean, irakasleak eurak Haur Hezkuntzako koordinatzailearekin batera aukeratzen dutela adierazi dute. Denboraldi bat egoten dira material hori erabiltzen eta kurtso amaieran bilera bat egiten dute horren ebaluazioa egiteko, hots, material horren gabeziak edota beharrak detektatzen dituzte, eta behar izatekotan material aldaketa egiten dute. Irakasleek material horren erabakian askatasun osoa dutela esan dute aho batez, hala ere, elkarrizketa aurrera joan den heinean horren inguruan zenbait kontraesan nabarmendu dira, non eskolaren ideologiarengatik baldintzatuta daudela nabarmendu den:

Z.U.: Curriculumean zehaztutako edukiak kontuan hartutik zenbait editorialen eskaintzak ailegutzen dira eskolara, eta irakasleok Haur Hezkuntzako koordinatzailearekin batera aukeraketa hori egiten dugu. Moldaketak egiteko aukera badaukagu, baina askotan errekurtsio eta denbora falta dira gure traba nagusiak.

[...] zerbait lantzerakoan ez dugu ahaztu behar eskola erlijioso batean gaudela, eta hemengo ideologia errespetatu behar dugu.

[Z.U: 35 urte, 11 urte irakasle bezala, 10 urte San Juan ikastetxean]

A.G.: irakasleak gela barruan gaudenez badakigu material bat ona edo txarra den, horrexegatik, gu geu gara zein material erabiliko den erabakitzen dugunak. Inork ez digute ezer inposatzen.

[...] ez ahaztu eskola kontzertatu batean gaudela eta Elizarako lan egiten dugula. Hemen ezin dugu eskola helburu bezala familia homosexualak lantzea ezarri. Beste gauza bat da gelan zu kasu konkreturen bat izatea eta hori era naturalean tratatzea.

Hala ere, nik uste dut naturalak diren gauzak ez direla tratatu behar, naturala izango balitz ez genuke tratatzearen beharra izango. Baina bueno, zuk lantzearen beharra ikusten baduzu tira!

Irakasle guztiek naturaltasuna azpimarratu dute egoera horren konponbide gisa. Euren esanetan gaia naturaltasunez tratatu ezkeru dena konpontzen da. Eurak, familia nuklearraren presentzia nagusian justifikatzen dute gai horren aurre hartutako jarrera, gainerako familia kasuak inoiz ez bada, oso gutxitan agertzen direla esanez:

D.A.: [...] nik adibidez nire gelan bi kasu berezi dauzkat. Batean aitak alde egin zuen ama haurdun zegoenean, eta bestean, aitaren inguruan ez dakigu ezer. Azkeneko kasu honetan neskatoak aitaren figura aititean hartu du. Orduan, familiaz hitz egiten dugunean kasu bi horiek naturaltasun osoz tratatzen ditugu, izan ere, eurak euren egoera zein den badakite. Adibidez gurasoentzako paperen banaketa egiterakoan nik kontuan izaten ditut bi ume horien egoera, eta haiei papera ematerakoan “tori hau amarentzat edo aititearentzat da” esaten diet. Hau da, nori zuzenduko naizen kontuan izanik, euren egoera aintzat hartzen dut.

[D.A.: 31 urte, 9 urte irakasle bezala, 9 urte San Juan ikastetxean]

S.L.: Egia da erabiltzen dugun materiala ez dela egokia tradizionala ez den familia batentzat eta agian berriztatu beharko ginateke, baina beno, horrelako kasuak oso gutxitan ematen dira. Nire gelan kasu konkreturen bat egotekotan, beharrezkoa balitz aproposak diren moldaketak egingo nituzke.

S.B.: Erabiltzen dugun material gaur egungo errealitatearekin guztiz ez datorrela uste dut, hala ere, kasu gehienetan familia tradizionalak nagusi direnez, ez dugu inolako arazorik aurkitu horiek erabiltzerako orduan.

[S.B.: 24 urte, bere lehenengo urtea irakasle bezala, 4 hilabete ordezkapenak egiten San Juan ikastetxean]

A.G.: Adibidez, zuk noizbait ikusi duzu unitateren batean ume beltzaran bat agertzen dela? Ez ezta? Hori gaia naturaltasunez tratatzen delako da, eta nik ez ditut inoiz umeak mesprezurik egiten ikusi beltza den pertsona bati, adibidez. Hemen gehiengoak lantzen da, eskola guztietan egiten duten bezala!

Naturaltasun hori justifikatu nahian, irakasle guztiek familiaren gaia egunerokotasunean landu beharreko kontua dela esan dute. Haurrentzat familiak hain garrantzitsuak izanik,

gai horri trataera berezi eman behar zaiola azpimarratu dute guztiek, euren presentzia gelan egunero nabarmentzearen beharra azpimarratuz:

B.D.: Nik goizero korruan gaudenean ikasleei hitz egiteko aukera ematen diet. Elkarrizketa horietan beti euren familien inguruko kontaktak egiten dituzte, eta horietaz baliatzen naiz askotan familia rolak, zein familia kideen bereizketak irakasteko. Haurrei euren familiaz hitz egitea asko gustatzen zaie.

Z.U.: Ikasleen familiaz interesa erakustea garrantzitsuak sentiarazten ditu haurrak. Familientzat espazio bat eskaintzea oso garrantzitsua da, batez ere haurrak oso txikiak direnean.

- **Behaketak / 3.eranskina**

Behaketen bitartez, egiaztatu ahal izan da irakasle guztiek euren ikasleen familia egituraketa ezagutzen dutela. Hala ere, taldekako biltzarrean esan bezala, gela barruan familiaren inguruan hitz egiterakoan soilik familia eredu nuklearrari egiten diote erreferentzia. Kasu konkreturen bat egotekotan ume horri zuzenean zuzentzen dira, euren hizkera ume horren egoerara egokituz. Horren adibidea lau urteko gela batean konkretuki behatu da gurasoentzako paperak banatzeko mementoan. Gela horretan guraso bananduak dituen haurra dago, beraz, irakasleak jakinda haur hori amarekin bizi dela, berari zuzenen “amari emateko” esan dio, gainerako umeei aldiz, “papertxo hau aita eta amarentzat da” esanez. Zehaztasun hori irakasleak ez du gainerako ikasleekin konpartitu, hau da, soilik ume konkretu horri bakarka zuzendu da.

Goizeko errutinak oso denbora eta espazio aproposak izan dira behaketak egiteko; izan ere, irakasleen esanetan une horietan ikasleei hitz egiteko aukera ematen zaie, eta kontaketa horietaz ere baliatzen dira eurak familiaren gaia jorrazteko. Hau da, irakasleekin izandako biltzarrean denek errutinen garrantzia azpimarratu dute, familia lantzeko memento bikainak direla argudiatuz. Hala ere, egindako behaketaren bitartez egiaztatu ahal izan da soilik hiru urteko gelan eskaintzen zaiela haurrei hitz egiteko espazio hura. Memento horietan haurrek nahi adina kontatzeko aukera izan dute, eta kasu gehienetan kontaketa horiek familiaren ingurukoak izan dira. Gela horietako tutoreak kontatutakoaren inguruan galderak egin dituzte horren inguruko interesa erakutsiz. Gainerako geletan, aldiz, errutinen espazioa errutinak berak burutzera zuzendu da, biltzarrean nabarmendutako elkarrizketa une hori aparte utziz. Zenbat eta irakasleak nagusiagoak izan, orduan eta fitxa eta eginbehar akademiko gehiago bete behar

dituztela behatu da; hori dela eta, gela horietan irakasleak mintzatzeko aldia murriztera edo kentzera behartuta ikusi dute euren burua une askotan. Horren adibidea 5 urteko geletan islatzen da; adibidez, gela horietan irakurmena lantzen hasi dira, eta ikasketa horrek denbora asko errekeritu egiten dio bai ikasleei, bai irakasleei ere. Gainera, ekintza horretaz aparte, unitate didaktikoen lanketa zein beste errefortzu fitzak ere egin behar dituzte; ondorioz, erlojuaren kontra ikusten dira memento askotan, eta hori ekiditeko goizeko errutina zein mintza uneak saihesten dituzte.

Bestetik, gelaren apainketari erreparatuz, bertan familietara zuzenduta dagoen espazio fisikorik ez dagoela ikusi ahal izan da. Hau da, nahiz eta gelan familiaren gaia zenbait hizketaldien bitartez egunero presente egon, eta irakasle guztiak agente horren berebiziko garrantzia azpimarratu, geletan ez dago horri erreferentzia egiten dion apainketa zein erakusgairik.

Gelan erabilitako materialari dagokionez, edukien analisisian ikusi bezala, hori familia nuklearrari soilik zuzendua dago. Erabilitako unitate didaktikoak, kontatutako ipuinak, landutako muralak etab., zuzenean edota zeharkako eran, familia eredu konkretu horri baino ez diete erreferentzia egiten. Nahiz eta gela batzuetan familia eredu horretatik aldentzen diren haurrak egon, ez dira material osagarriak edota dagoenaren moldaketak egiten. Irakasleak material konkretu horien gidetan zehazten diren eginbeharretara mugatzen dira, ekarpen edota egokitzapenik egin gabe.

- **Elkarrizketa sakona / 4. eranskina**

Zuzendariarekin izandako elkarrizketan ikastetxe hartan familiek duten garrantzia zenbaitetan azpimarratu du. Haren esanetan, familiak ahalik eta partehartzaileen egiten saiatzen dira, eskola eta familia integratzen dituen proposamen ezberdinen bitartez:

ZUZENDARIA: eskolan egiten ditugun jaialdi guztietara familiak gonbidatzen ditugu, eurak ere ospakizunez disfrutatu ahal izateko. Bestetik, duela gutxi Haur Hezkuntzako bigarren zikloan proiektuak egiten hasi ginen, pasaden hiruhilekoan Egiptokoa eta gaurkoan Piratena. Solairu osoa gai konkretu horietaz apaintzen dugu, eta proiektu horiek amaitzen direnean gurasoak ere gonbidatzen ditugu egindako lan guztia ikus dezaten. Horrelako inizatiben bitartez, poliki eskolan partehartzera animatzen doaz.

[P.A.: 58 urte, 20 urte zuzendari bezala]

Zuzendariak goraipatutako familien garrantzi hori bat dator ikastetxeko webgune korporatiboan zein Bilboko Elizbarrutiko ikastetxearenean aniztasuna eta familiaren

inguruan egiten duten eskaintzarekin: “[...]gure eskolek arreta berezia egiten diote aniztasunari”; “familia eredu berrien agerpenaren erronkari aurre egiten diogu”; “gizarte errealitatearen hobekuntzaren aldeko konpromisoa hartzen dugu”... Bi gai konkretu horren aurrean ikastetxeak hartzen duen erantzukizuna ezagutu nahian, zuzendariari horren inguruan galdetu zaio; hala ere, jasandako erantzunak familia aniztasunaren gaitik desbideratu egin dira:

ZUZENDARIA: Bilboko Elizbarrutiko eskolen barruan hamasei eskola daude. Horietako bakoitzak bere testuinguruaren arabera egokitzen joan da. Adibidez, gure kasuan, familiak dituzten beharretara moldatzen saiatzen gara, horrexegatik, duela urte batzuk gurasoek euren seme-alaba txikiak non uzterik ez zeukatela ikusirik, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa zabaltzea erabaki genuen. Muskiz bertan eskaintza hori egiten duen eskola bakarra gara.

Aniztasunarekin gauza bera, gure eskolan heziketa berezia behar duten zenbait ikasle daudenez, prestakuntza berezia duten profesionalak ditugu. Horretaz aparte, ume horiekin espresuki lantzeko material zein gela bereziak ere eskaintzen ditugu.

Ikastetxera doazen familia eredu berrien inguruan ere galdetu egin zaio zuzendariari, familia horiei zuzendaritza ere trataera berezirik ematen zaion ezagutzeko asmoz. Zuzendariak alde burokratikoan zentratu du elkarrizketa, gainerako eskoletan bezala Hezkuntza Administrazioetik bidalitako jarraibide zehatz batzuk bete behar dituztela esanez. Elkarrizketa ikerketaren gaira bideratu nahian, eskolak familia inklusio proiektu edota proposamen dituenaren inguruko azken galdera egin zaio zuzendariari, eta hauxe izan da berak emandako erantzuna:

ZUZENDARIA: Familia guztiei erantzuna ematea ezinezkoa litzaiguke, guk gure ikastetxean dauden familietan zentratzen gara batik bat. Hona datozenek eskolak duen funtzionamendua eta eskaintzen duen hezkuntza mota ezagutzen dute, eta horregatik aukeratzen gaituzte.

Ikusi bezala, zenbait gairi heltzea ez da bat ere erraza, eta eurentzat ere gai konplexuak direla nabarmentzen da; hala ere, ikastetxeak poliki-poliki euren ikasleen familia aniztasunaz ohartzen doa, eta nahiz eta kasu konkretu batzuk baino ez egon, horietara moldatzeko aukera zabalik uzten du.

4. Ikerketaren ondorioak, mugak eta hobekuntzarako proposamenak

4.1. ondorioak

Ikerketan zehar erabilitako teknika kualitatiboen aplikazioa eta horien ebaluazioa egin ostean, honako ondorio hauek nabarmendu dira:

- San Juan ikastetxean familia nuklearra hartzen da erreferentzia gisa familiaren gaia lantzeko orduan. Erabilitako materiala zein horri emandako trataera familia eredu tradizionalari zuzenduta dago. Hau da, gaia lantzeko erabilitako unitate didaktikoetan, zein gela barruan erabilitako gaienerako material osagarrietan ama, aita eta horien seme-alabez osatutako familiak dira nagusi.
- Azkeneko urteotan familia eredu berriek gizartean hartu izan duten presentziaz ohartuta, irakasleen gehiengoa material horren edukien gaurkotasunaren alde azaldu da, aniztasuna eta inklusioa oinarri duten material baten alde agertuz. Hala ere, euren jokaera eta hitzengatik nabaria da ez dakitela nola heldu gaiari, nondik hasi eta noraino egin aldaketa. Horren eraginez, ohikoa ez den egoera baten aurrean bat bateko erantzun sinpleak ematen dituzte, egitasmo sistematiko eta egokituak garatu ordez.
- Irakasleek, familia eredu berrien aurrean naturaltasuna gaketzat hartzen dute, aniztasuna ulertzeko eta errespetatzeko erreminta eraginkorrena dela adieraziz. Erabilitako teknika ezberdinen bitartez egiaztatu ahal izan da gelan kasu konkreturen bat egotekotan aniztasun hori naturaltasunez tratatzen dutela ume konkretu horrekin, hala ere, zehaztapen horretatik sortzen da hutsegitea. Marko teorikoan esan bezala, eskola familia aniztasunaren aurrean ispilua eta leihoa izan behar da; ispilu bat non ikasle guztiek euren esperientzia pertsonalak islatuak ikusten dituzten, eta leiho bat non gainerako ikasleek besteen esperientzia horietaz ere aberasten diren. Hau da, komenigarria da ikastetxean ematen den aniztasunaz jabetzea, eta hori gainerakoekin konpartitzea, zeren eta gai hori saihesten edota lantzen ez bada curriculum ezkutuan jarraituko du eta, ondorioz, ikasleei transmititutako ereduak ez diete gaur egungo premiei erantzungo.
- Familia aniztasunaz hitz egitean irakasle gehiengoek soilik familia homoparentalei egiten diote erreferentzia, hortaz, gaiarekiko sortzen den eragozpena. Hala ere,

familia ereduaren artean molde ezberdin askok ez dute talka egiten eskolaren ideologiarekin eta eskola konkretu horretan presente daude.

- Zuzendariarekin izandako elkarrizketan esandakoaz baino, esan ez denaz ondoriozta daitezke. Nahiz eta eskola familia eredu berrien presentziaz jakitun egon, nabaria da gai hori oraindik ere ebatzi gabeko gaia dela; izan ere, familia aniztasuna aldaketa garrantzitsuak eta konplexuak eragiten dituen erronka bihurtu da. Ikastetxeak euren ideologiarekin bat datorren familia nuklearra defendatzen du, eta familiek horren jakitun egonda funtzionamendu edota pentsaera horri egokitzea baino ez dute.
- Ondorio konkretu horiek guztiak uztartuz, ikerketa hasieran planteatutako galderari erantzuten duen ondorio orokorra nabarmentzen da: **ikastetxe honen ideologia erlijiosoak neurri batean traba bat da familia eredu berri guztiak gelan lantzeko orduan; hala ere, eskolaren ideologiaz aparte, irakasleen berezko ideologiek edota pentsamenduek ere gelan landu beharreko edukiak baldintzatzen edota mugatzen dituztela frogatu ahal izan da.** Izan ere, oraindik ere badaude zenbait kasu konkretu, familia homoparentalak adibidez, tema tabu gisa hartzen dituztenak eta euren pentsamendu erlijiosoarekin talka egiten dutenak.

4.2. Mugak

Egindako kasu ikerketa hau egoera zehatz bakar batean burutua izan denez, ateratako ondorioak ezin dira gainerako eskola erlijiosoei orokortu; hau da, alde batetik, orokortze zientifikoak egin ahal izateko lagina handitzea beharrezkoa da, ideologia edota funtzionamendu ezberdinetako eskoletan ikerketa ere eginez. Hori kontuan izanik, lehen aipatu lez, hasiera batean Muskiz herrian bertan dauden beste bi eskoletan ere ikerketa egitea erabaki zen, baina proiektu honek eskaintzen duen espazio eta debora oso mugatua denez ideia hori alboratu egin behar izan zen. Hala ere, proposamen hori etorkizun ez urrunean lantzeko aukera ondo legoke.

Bestetik, teknika ezberdinen bitartez bereganatutako informazioaren fidagarritasuna ziurtatzeko, egokia litzateke datu horiek beste zenbait ikertzaileek eskuratutakoekin alderatzea, lortutako emaitzak eta ateratako ondorioak ahalik eta objektibo izan ditzaten.

4.3. Hobekuntzarako proposamenak/ 5. eranskina

Ikerketa hasi aurretik planteatutako helburua familia eredu guztiei erantzuna ematen dion unitate didaktikoa sortzea zen. Hala ere, ikerketa aurrera joan heinean, zenbait muga agertzen joan dira, familia molde horiek guztiak lantzea trabatzen dutenak. Muga horiek ikusita, eta ikastetxe konkretu horrek dituen beharrak eta lehentasunak kontuan izanik, haur hezkuntzako irakasleen laguntzarekin batera, eta eskolaren ideologiarekin talka egin gabe, aste bateko unitate didaktiko bat antolatu da, non familia tradizionaletik aparte, ikastetxean bertan dauden beste zenbait familia ereduak ere islaturik agertzen diren.

Unitate didaktiko hori ikastetxeak dituen beharretara egokituta dagoenez, gainerako material didaktikoaren osagarri gisa lantzeko diseinatu da, egun bakoitzeko jarduera bat planteatuz. Proposatzen diren jarduera horiek ez dute helburutzat familia egituraketa berri bat aurkeztea, baizik eta familia aniztasuna haurren egunerokotasunean naturaltasunez txertatzea. Helburua familia kideen arteko maitasuna gailentzea da, euren egituraketa edozein delarik ere.

Jardueren planifikazioa egiterakoan González (2009) *Cultura y Educación* aldizkarian argitaratutako material ezberdinen bibliografia aintzat hartu da, baita Colegades (2007) gai honen inguruan garatutako Prisma izeneko programa.

Jakin arren benetako inklusioa lortzeko eraldaketa sakonago bat beharrezkoa litzatekeela, non eskolaren agente guztiak inplikaturik dauden, unitate didaktiko honen medioz lehenengo aurrerapauso bat eman nahi izan da. Nahiz eta honen bidez gaur egungo gizartean islatzen den benetako familia aniztasun osoa landu ez, ekarpen honek aurrerapauso handia ekartzen du ideologia konfesionala duen ikastetxe batentzat; izan ere, proposamen hau eskola inklusiboaren bidean lehenengo urratsa da.

5. Erreferentzia bibliografikoak

Aguado, L. (2010). Familia ereduak gaurko eskolan. *Tantak*, 22(1), 127-148. 2014-02-3an hartua, hemendik: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Tantak/article/view/2201/2270>

Alderdi, I. eta Escario, P. (2007). *Los hombres jóvenes y la paternidad*. Bilbo: BBVA fundazioa.

Allegre, O. (2000). *Diversidad humana y educación*. Malaga: Ediciones Aljibe.

Bilboko Elizbarrutiko Ikastetxeak. (2014). *Aurkezpena*. 2014-05-22an hartua, hemendik: <http://www.centrosdiocesanos.net/presentacion.php>

Campelo, P. eta Izaola, A. (2012). Bizi baldintzak eta Gizarte Ongizatea. *Eustat*. 2014-04-02an hartua, hemendik: http://www.eustat.es/elementos/ele0009800/ti_Informe_Socioeconomico_de_la_CA_de_Euskadi_2012_Condiciones_de_vida_y_bienestar_social_PDF_366KB/inf0009892_c.pdf

Colegades, C. (2007). *Prisma: Una aproximación práctica a la familia no tradicional*. Cadiz: Colegades Cádiz.

Conferencia Episcopal Española. (2003). *Directorio de pastoral familiar*. Madril. 2014-02-24an hartua, hemendik: <http://www.conferenciaepiscopal.es/documentos/Conferencia/PastoralFamiliar1.htm>

Corrales, M., Corrales, R., Iglesias, R. eta Sánchez, M. (2012a). *Besarkadak eta laztanak*. Zaragoza: Ibaizabal.

Corrales, M., Corrales, R., Iglesias, R. eta Sánchez, M. (2012b). *Uharteko etxea*. Zaragoza: Ibaizabal.

Corrales, M., Corrales, R., Iglesias, R. eta Sánchez, M. (2012c). *Suaren epelean*. Zaragoza: Ibaizabal.

Garreta, J. (2007). *La relación familia-escuela*. Lleida: Lleidako Unibertsitatea.

Golombok, S. (2006). *Modelos de familia. ¿Qué es lo que de verdad cuenta?* Bartzelona: Graó.

González, R. eta Guinart, S. (2011). *Alumnado en situación de riesgo social*. Bartzelona: Graó.

González, M. (2009). Nuevas familias, nuevos retos para la investigación y la educación. *Cultura y educación: revista de teoría, investigación y práctica*, 21(4), 381-389.

Hernández, J. eta López, A. (2001). *La familia ante el cambio social: actitudes, perspectiva y nuevos retos*. Valentzia: Nao Llibres.

Instituto Nacional de Estadística. (2013). *Censo de población y viviendas 2011. Datos detallados*. 2014-02-16an hartua, hemendik: <http://www.ine.es/prensa/np824.pdf>

Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako metodoak eta teknikak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Jurado, T. (2008). Las nuevas familias españolas. In: González, J.J. (2008). *Tres décadas de cambio social en España*. Madril: Alianza

López, F., Díez, Morgado, M. eta González, M. (2008). Educación infantil y diversidad familiar. *Revista de educación*, 10, 111-122.

Mesonero, M. (2005). *Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Mujica, I. (2005). Modelos familiares y cambios sociales: la homoparentalidad a debate. *Aldarte*. 2014-01-19an hartua, hemendik:

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/Cuaderno%20modelos%20familiares%20y%20cambios%20sociales.pdf>

Pérez, P. (1993). *Demografiaren modernizazioa*. 2014-04-12an hartua, hemendik:

<http://www.euskara.euskadi.net/r59>

luredir/es/contenidos/articulo/c0201/eu_d0201027/0201027.html

Pichardo, J.I. (2008). *Entender la diversidad familiar: Relaciones homosexuales y nuevos modelos de familia*. Bartzelona: Bellaterra.

Rice, F. (1997). *Eldesarrollo humano. Estudio del ciclo vital*. Mexiko: Pearson.

Tudela, Bilbo, Donostia eta Gasteizko gotzainek. (1995). Familia aurkitzea gaur egun. *Euskal Herriko Elizbarrutiak*. 2014-05-08an hartua, hemendik:

http://www.bizkeliza.org/?L=1&id=82&id_publicacion=231

San Juan Ikastetxea. (2014). *Misioa eta ikuspena*. 2014-05-22an hartua, hemendik:

http://sanjuan.laboradomo.com/web/cont_p6.php?idp=d3769031d0615fa17765&idi

E R A N S K I N A K

1. Eranskina. Edukien analisisa / Erregistro fitxa.

EDUKIEN ANALISIA			
	BAI	EZ	OHARRAK
Unitate didaktikoa familiaren gaia lantzerazuzenduta dago espresuki.			
Unitatean familia eredu ezberdinak antzematen dira.			
Edozein familia motak unitate horretan bere burua identifikatzeko aukera du.			
Irudiak gaur egungo errealitatearen isla dira.			
Unitate didaktikoan agertzen diren edukiak estereotipatuak daude.			
Familia kideen arteko berdintasun printzipioak antzematen dira unitatean.			
Unitatean landutako edukiak nahikoak dira gaur egungo familia errealitate guztiak ezagutzek.			
Material didaktikoa egitura zabala du, egokitzapenak zein ekarpen berriak egiteko aukera emanez.			

2. Eranskina. Eztabaida taldea / Gidoia.

EZTABAIDA TALDEA	
GELA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gela barruan familiaren gaia lantzea garrantzitsua dela uste duzue? 2. Nola burutzen duzue lanketa hori?
MATERIALA	<ol style="list-style-type: none"> 3. Gelan erabilitako materiala zein horri emandako trataera gaur egungo errealitatean antzematen den familia aniztasunarekin bat datorrela uste duzue? 4. Material berri eta egokitu baten beharra sumatzen duzue?
ESKOLA	<ol style="list-style-type: none"> 5. Eskolaren ideologia erlijiosoak traba bat izan daiteke familia aniztasuna gelan lantzeko orduan?

3. Eranskina. Behaketa taula / Erregistro fitxa.

BEHAKETA TAULA				
	BAI	BATZUETAN	EZ	OHARRAK
Irakasleak bere ikasle guztien familia egituraketa ezagutzen du.				
Irakasleak bere ikasleen familiaz interesa erakusten du.				
Gurasoen inguruan hitz egiten duenean hizkuntza neutrala erabiltzen du.				
Irakasleak familien inguruan hitz egiten duenean familia eredu ezberdinei egiten dio erreferentzia.				
Ikasleek euren bizipenak zein nahiak adierazteko espazioa daukate.				
Gela barruan ikasleen familiei erreferentzia egiten dion espazio fisikoa dago.				
Gelan familia eredu guztiak aintzat hartzen dituen material didaktikoa erabiltzen da.				
Behar izanez gero irakasleak materialen moldaketak egiten ditu.				
Irakasleak familiaren inguruan ematen dituen argibideei esker ikasleek familia eredu ezberdinak bereganatzen joaten dira.				

4. Eranskina. Elkarrizketa / Gidoia.

ELKARRIZKETA	
FAMILIA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Zein nolako familia ereduak dira nagusiak ikastetxean? 2. Familia eredu berrien agerpena sumatu da azken urteotan?
ESKOLA	<ol style="list-style-type: none"> 3. Bai Bilboko Elizbarrutiko eskolen webgunean, bai ikastetxe honetakoan, honelako baieztapenak argitaratu dituzue eskolen aurkezpena egiterakoan: “gure eskolek arreta berezia egiten diote aniztasunari”; “familia eredu berrien agerpenaren erronkari aurre egiten diogu”; “gizarte errealitatearen hobekuntzaren aldeko konpromisoa hartzen dugu”. Nola egiten diozue aurre horrelako egoerei? proiektu edota ekintza bereziak burutzen dituzue?

5. Eranskina. Familia unitate didaktikoa / Jarduerak.

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1. Jarduera	2. Jarduera	3. Jarduera	4. Jarduera	5. Jarduera
Hau da nire familia	Familia bai ala ez?	Familia liburua	Familiaren bilakaera	Munduko familiak

1. JARDUERA	Hau da nire familia.
Deskribapena	<p>Ikasle bakoitzak bere familiaren argazki bat ekarriko du klasera, eta guztion artean zenbait aspektu komentatuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Argazkian agertzen diren pertsona ezberdinen aurkezpena eta identifikazioa. - Argazkian agertzen ez diren familia-kideekiko dugun harremana. - Familia-kide bakoitzak etxean zein kalean dituen betebeharrak. - Aurkeztutako familia guztien arteko ezberdintasunak eta berdintasunak. <p>Irakasleak elkarrizketa bideratuko du, puntu bakoitzean gogoeta galderak eginez: <i>Nortzuk agertzen dira argazki honetan?, Argazkian agertzen diren pertsonaz aparte familia gehiago duzue?, Aurkeztu dituzuen familia guztiak berdinak dira?, Zertan dira berdinak eta zertan ez?</i></p> <p>Bukatzeko, gelan mural bat egingo dute non haien familiaren argazkiak eskegiko dituzten.</p>
Helburu espezifikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako ikasleen familiak ezagutzea. - Familia kideen izenak ezagutzea eta ezberdintzea. - Familia zabala eta nuklearra bereiztea. - Ikasleen familiei garrantzia ematea, eta gelan haientzako espazioa zabaltzea.
Denboralizazioa	Ordu beteko saioa.
Materiala	Argazkiak, murala egiteko kartulinak eta margoak.

2. JARDUERA	Familia bai ala ez?
Deskribapena	Ikasleei pertsona zein egoera ezberdinetako txartelak erakutsiko zaizkie (ikasle gela, futboleko taldea partidua jolasten, familia bat telebista ikusten...), eurak bertan agertutako irudiek familia bat osatzen duten ala ez adierazteko.
Helburu espezifikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Familia beste zenbait gizataldeetatik ezberdintzea. - Familia barruan ematen diren elkarrekiko loturak ezagutzea.
Denboralizazioa	30 minutuko saioa.
Materiala	Txartelak.

3. JARDUERA	Familia liburua
Deskribapena	Irakasleak familia ezberdinetako liburua irakurriko die haurrei. Liburu horretan ezaugarri ezberdinetako familiak agertzen dira: ohitura ezberdinetakoak, eraketa ezberdinetakoak, jarduteko era ezberdinetakoak... Irakurketarekin amaitu ostean liburuan agertutako familia ezberdinen ezaugarri horiek komentatuko dira, eta ondoren, ezberdintasunak alde batera utzita, familia horien komuneko aspektuez ere mintzatuko dira, sentimenduei garrantzirik gehien emanez. Guztion artean komentatutako berdintasunak eta ezberdintasunak arbelean egindako bi zutabeetan idatziko dira. Amaitzeko, esandako guztia kartulina handi batean idatziko da, aurreko saioan egindako familia muralaren ondoan jarritz.
Helburuespezifikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haien familia eredutik aldentzen diren familiak ere daudela jakinaraztea. - Familia ezberdinen ohiturak eta bizitzeko erak ezagutzea. - Familia guztietan, horiek egitura ezberdina izan arren, komuneko aspektuak daudela igartzea: maitasuna, errespetua, laguntasuna...
Denboralizazioa	Ordu eta erdiko saioa.
Materiala	Familia-liburua, kartulinak, marrazkiak, margoak.

4. JARDUERA	Familiaren bilakaera.
Deskribapena	Irakasleak Izaro eta Peio umeen inguruko ipuintxoak kontatuko dituzte. Ipuin horretako protagonistek familietara jolasten dute, aspaldiko zein gaur egungo familiak imitatuz. Imitazioaren bitartez garai ezberdinetako familiak aztertzen dituzte, bakoitzeko ezaugarri nabarmenenak azpimarratuz. Horri esker, denboran zehar familiaren inguruan gertatutako aldaketak zein aurrerapenak antzemango dituzte.
Helburu espezifikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Familiak urteen poderioz jasandako aldaketa sozialak zein estrukturalak ezagutzea. - Aldaketa horien inguruan hausnarketa jarrera bultzatzea. - Lehen eta gaur egungo familien arteko ezberdintasunak antzematea.
Denboralizazioa	Ordu beteko saioa.
Materiala	Ipuina.

5. JARDUERA	Munduko familiak.
Deskribapena	Lehenengo eta behin, kontinente ezberdinetako familia eredu ezberdinen argazkiak erakutsiko zaizkie ikasleei. Argazki horietan eraketa zein ohitura ezberdinetako familiak agertzen dira. Familia bakoitzaren berezitasunaz mintzatuko dira, oraingoan ere, familia guzti horiek komunean duten aspektua azpimarratuz: maitasuna.
Helburu espezifikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kultura ezberdinetako familiak ezagutu, berdintasunak eta ezberdintasunak antzemateko eta horrek dakarren aberasketa balioztatzeke. - Beste kulturekiko tolerantzia eta errespetua sustatzea. - Beste kulturetako familia kideen arteko harremanak aztertzea.
Denboralizazioa	45 minutu.
Materiala	Argazkiak.